

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

537. zkia.

XIII. urtea

2005eko uztailaren 8a

Inazio Iriondo

**«Kartzelako bizimodura, ohitu
baino gehiago egokitu egiten zara»**



Zure logela aukeratzekoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.
Gure erakusketa bisita ezazu!



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.



Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu.
%50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU



Mustisac-ekin **INDEPENDENTZIA**, bi pertsonak ohe berean egin dezakete lo erosotasun eta independentzia osoz, ohe ezberdinetan egongo balira bezala.

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



AINHOA MENDIBIL



AMAIA GORROTXATEGI

ZOZOAK BELEARI...

Atsaldeon guapi!
Astea, edo aste pareta eman dut zuri zer idatzi pentsatzen. Kanpinean izan nintzen lagunekin eta, zin dagizut, bertan mila eta bat ideia otu zitzaizkidan. Baina... keba, guraso gehiegi irakurle moduan.

Hondartzan ere izan naiz dezente eta... bikini estuek, gorputz gorriek eta... eta gure arteko begiradek ere eman didate zer esanik baina... Elgoibar kuxkuxero honetan...

Orain dela gutxi, udalekuetan dauden elgoibartarrei bisita egitera ere joan naiz. Eta honek... ene ba!! Zenbat kontu! Amaia, benetan, "flipatu" egin dut! Gustura ziharduten dantzan, lotsarik gabe, sentitu eta egin! Baina honi ere ezin zozoaren gaurko berba denak eskaini. Gero umeak kexatuko zaizkit bestela, dena kontatu dudala leporatuz...

Amaia, herri honetan ezin da ezer esan. Ezer egin. Etiketa beteko zaituzte kanpinean mozkortu, hondartzan lizunki begiratu eta udalekuetan maitasunari garrasi egiten uzteagatik. Zeure burua etiketatzeko besteko gauzarik egin al duzu azterketen ostetik hona?

PD Aurreko esaldiak ez du esan nahi kanpinean mozkortu egin ginenik!!!

A! Eta badakizu, udia ondo pasau, bixi bizi, ta hori bai, idazteko goguakin bueltau!

«Herri honetan ezin da ezer esan. Ezer egin. Etiketa beteko zaituzte»

AINHOA

«Mozkorraldiak kritikatzeko dituen ez al da inoiz mozkortu?»

AMAIA

Ooohh!! Oporrek aurreko zozoak beleari aipaturiko erdoil guztia kendu didate!! Eta ametsak, ametsak aurkitu ditut zuk aipaturiko mozkorraldietan, hondartzako begirada ezkutaezin horietan eta udak kitzikatutako amodio lotsagabeetan... amets eroak, "gaztametsak".

Nor ausartzen da hondartzako begirada lizun bat etiketatzen?? Mozkorraldiak kritikatzeko dituen ez al da inoiz mozkortu??

Zu lasai Ainhoatxo, gure irakurle diren gurasoak jada konturatu dira ez garela kanpotik ematen dugun neskatxo txintxoak! (halere, nahiko txintxoak gara e!).

Beraz, Elgoibar kuxkuxero honetako jakinmina asetzeko, hurrengoan kontatuzadazu nork bota zizun horrenbeste gustatu zitzaizun hondartzako begirada lizuna, edo nola dantza egiten duten udalekuetara beraien gurasoen begiradatik ihesi joaten diren umetxoek!! (Baina ez pasa, ez nuke nahi gure atala zentsuratzerik!).

PD: Bueno kuxkuxero xamarrak zareten arren, aitortu beharra dut (ondo geratzeko bada ere) plazer bat izan dela urtean zehar guztion etxeetan, begietan eta ahoetan egotea; eta esker bereziak barreneko txaloak sailean atal hau goratu zuenari!!



GIZAKIAREN GAIXOTASUN NAGUSIENETARIKOA DA INOIZ JAKINGO EZ DUENA EZAGUTZEKO GRINA



Blaise Pascal

Kiroldegiko harrerakoei

Atzo piszinara joan nintzanean ez zeundeten betiko tokian. Ez nuen Nerearekin berba egiterik izan harrera paretik pasatzerakoan; ezin izan nion Edumeri diru-zorria gordetzeko eskatu. Harrera tokian ez zegoen inor, hutsik zegoen; aulkiak zuek noiz iritsiko zain zegoela ematen zuen.

Igeri egin eta etxerako bidea hartu behar nuenean, banekien ez zinetela egongo, baina, badaezpada ere, begiratu egin nuen. Ez zeundeten. Ezagutzen ez nuen neska bat zegoen paperei begira. Aspaldiko partez, harrerakoari ezer esan gabe alde egin nuen. Suerterik onena opa diet harrerako langile berriei, zuei zuen lan berrietan opa dizuedan bezalaxe.

Akaso ez zaituztet gehiago Kiroldegiko harreran ikusiko. Baina kalean ikusten zaituztedanean, akordatuko naiz. Eskaintzen zenidaten irribarreaz akordatuko naiz.

I.L.

OKERRAK ZUZENTZEN

535.alean, Lucia Casquerok Dieta Osasuntsuaren inguruan idatzitako artikuloan honako zeuzenketak egin behar dira:

1.- Olioia A, D, E, F eta K vitamina liposolubleen iturria da, euren garraioa bermatzen baitu.

2.- Ez da gomendagarria olioia behin baino gehiagotan erabiltzea, toxikoak dituelako eta bitaminak aldeztu aurretik erreta daudelako.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enertzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iñando MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Gorroategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmukaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Urruzuno, Unai Villena, Aiaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Getxo Kooper. E. TRADA 4.360 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

I. URTEURRENA

2004ko uztailaren 10ean, 81 urte zituela hil zen

Felisa Arrieta Irazabalbeitiaren

oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, uztailak 9, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





KEXAK

• Herritar batek esan digunez, **Merkatu Plaza atzeko zubiak lurrean zeharka dituen oholak altxatuta daude**: "Zubi berria den arren, dagoeneko hasi da kaxkartzen. Egurrezko ohol batzuk altxatuta daude, eta oso modu arriskutsuan gainera. Zubi horretatik jende asko ibiltzen da, eta azkenaldian uste baino jende gehiagok egin du estropozu. Dagokionak mesedez konpondu dezala ezbeharren bat gertatu aurretik. Bestalde, jende askok txakurrak eramaten ditu zubi horretara beren eginbeharrak egiteko, eta hori ez da horretarako lekurik egokiena."



• Herritar batek esan digunez, **uraren prezioa izugarri garestitu da**: "Lehen zaborrarekin batera kobratzen zuten Udalak, eta Gipuzkoako Uren Patxuergoak kobratzen duenetik uraren faktura bakarrik lehen biena zena baino garestiagoa da. Erreklamazioak egitera joan izan naizenean alde batetik bestera bidaltzen naute, eta inork ez dit azalpen garbirik ematen. Bezeroen arretarako zerbitzua jarri badute zerbaitetarako izan dadila! Ez dago eskubiderik, ez dut ulertzen zergatik hain denbora gutxian ura hainbeste garestitu zen!"

• Herritar batzuk esan digutenez, **Mintxetako igerilekuetako prezioa oso garestia da, eta gainera dena lokaztuta dago**: "Egun bateko sarrerak 5,20 euro balio ditu, eta berdin da goizeko 11:00etan joatea edo arratsaldeko 17:00etan. Oso garestia da, eta gainera, jende gehiena ez da egun osoa bertan egoten. Nire ustez tarifa desberdinak egon beharko lirateke. Bestalde, zelaian lokatz mordo dago. Uretatik atera eta hanka guztiak lokatzez zikintzen dira. Egoera honetan 5,20 euro kobratzea lotsagarria da!"



TXALOAK

• Herriko talde batek bihotzez eskertu nahi du **50 urteko kinto bazkaria antolatu zuen komisia, Manu buru zela**: "umore ona eta dantzarik ez zitzaigun falta izan. Ez zaigu egun hau berehalakoan ahaztuko. Eskerrik asko!"

• Amnistiaren aldeko mugimendutik joan zen larunbatean **Inazio Iriondoren omenaldiko bazkaria prestatu zutenak** eskertu nahi dituzte, 175 laguntzako bazkaria prestatu zutelako.

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- 📍 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 📍 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📍 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



URRUZUNOREN
Luma

Jaien xarma

Ez omen gara berdinak horrelako egunetan. Norberarena dena besteekin banatzen ikasten dugu, aurpegirik goibelenari ere irribarreren bat edo bestek egiten dio ihes, gaua eta eguna uztartzen ditugu gainontzeko urte sasoieta ez bezala.

Gauaren xarmak berebiziko garrantzia du; milaka izarren azpian gorputzek euren artean solasteari ekiten diote inon ezkutatu beharrik izan gabe, urte guztiko lanaren karga alde batera utzi eta ez dugu ondo pasatzea beste helbururik izaten.

Egunak ere badu zeresanik; batzuek lo seko igarotzen duten bitartean, beste askok ez dute etxea usaindu ere egiten.

Gutziz bereziak dira jaiak, guri abuztuaren 23ra arte apur bat itxoitea tokatzen bazaigu ere, Iruñean zapi gorria lepoan jarri eta hartu dute hasiera San Ferminek. Hemendik zorte on zezenaren adar zorrotzen aurrean korrika ibiliko direnei, zenbaiten arabera ez baitago entzierroan korrika egitea baino gauza zirraragarriagorik.

Gora San Fermin!!!!

Gora!

Ane Odria

[ZORTZIKO TXIKIAN]



**MARI JOSE
MIRANDA**

ALBOKUA
AHOLKULARITZA

Zure etxeko...

• **Leihotik zein paisaia ikusi nahi zenuke?**

Itsasoa. Hondarribia eta Kontxako badia izugarri politak dira eta gustuko ditut.

• **Atea norentzat utziko zenuke zabalik?**

Etxekoentzat eta lagunentzat.

• **Logelan nor aurkitu nahi zenuke?**

Nire senarra.

• **Patioan zein txutxumutxu entzun nahi zenuke?**

Ez naiz txutxumutxu zalea. Patioan isiltasuna da entzun nahi nukeen bakarra.

• **Ganbaran etxeko zer tresna edo elektrotresna gordeko zenuke betirako?**

Plantxa. Ez dut batere gogoko plantxatzea.

• **Postontzian ze eskutitz jaso nahi zenuke?**

Lagun on baten eskutitza. Fakturak eta publizitatea ez den beste edozer.

• **Sukaldean zer prestatuko zenuke norbait konkistatzeko?**

Mariskada on bat.

• **Teilatuan eserita zein amets egingo zenuke**

Amets gutxi egiten dut azkenaldian, baina beti ditut gogoan alabak. Beraientzako etorkizun on batekin amets egiten dut.

komikia



Aizue, semearekin ari nintzen ezkutaketetan jolasten eta errausketa labean sartu da. Ikusi al duzue?

Bai, une honetan ari da tximiniatik ateratzen ke itxurarekin...



Kokoe 25

[AKORDATZEN NAIZ]



FELISA BERGARETXE

1915an jaioa

«Gaztarua Ermuan»

Gaztetan etxian amari laguntzen nion. Amak ortuan egiten zaban lana. Kalian bizi giñan, baiña ortu txiki bat gendukan alokatuta. Bertatik, etxerako jana ateratzen gendun: porruak, patatak, txarriak, untxiak, oilluak... danetarik zakagun. Atxurrian ez gendun egitten, baiña landarieri ura bota eta holakuak, bai. Guk ez dogu etxian goserik pasau. Amak ogixa egitten zaban etxian, eta ahorako beti zakagun jatekoa. Babazalia ez nitzan, nahixago nittuan porruak, baiña ikasi naban babak ere jaten.

Aitta Ermuko udaltzaiña zan, herriko udaltzain bakarra. Kobruak egin bihar izaten zittuan, eta berari

ere laguntzen nion, etxez etxe jendiari kobraketak egittera juaten nitzan. Eskailera mordu pasau bihar izaten naban alperrik, askotan entzun bihar izaten naban beste egun batian juateko, dirurik ez zakela-eta.

Hamabi-hamahiru urte ingurura arte ibilli nitzan eskolan, nere ahizpak gaztiaguak ziran, eta harek ikasten jarraitxu zaban, baiña nik ez. Ikasteko ahalmen haundixa nakan. Neri matematikak gustatzen jatazen gehixen. Ariketa gehixenak ondo egitten nittuan. Ikasten jarraitu izan banu, seguru urrutira iritsiko nitzala, baiña nere atzetik anai-arreba gaztiaguak nittuanez, nik ikastiari laga egin bihar izan nion.



[GURE BERBAK]

Zenbakixak eta zenbatzailliak esapidietan

Bereizgarriak begittantzen jatazen zenbaki eta zenbatzailliak jaso dittut gaurkuan. Batzuk esamolde edo esapidietan erabiltzen dira, beste batzuk, besterik gabe, normal erabiltzen dira, baiña igual ez dira gehixegi entzuten gure kalietan: horregaitik daude hemen:

- *Bost ajola neri zuk zer egitten dozun!*
- *Beriak eta bost esan ziozen andriak gizonari.*
- *Hamaika holako ikusteko jaixuak gara.*
- *Ziento bat porru-landara erosi dittut.*
- *Jendia dozenaka etorri zuan gure jaialdira.*
- *Lau katu besterik ez giñuazen juntau zinian.*
- *Prailliaren dozenia, hamairu.*
- *Hauk danak bat dittuk (berdinak dirala adierazteko).*
- *Alaba bi daukadaz (Bi zenbatzaillia izenaren ostian ere bai).*
- *Kintzenia kobratzera juaten zittuazen lehen andrak tallarrera, badaezpada ere! (lehengo soldata)*
- *Zer logura eta zer otxokuarto! Jaiki hadi ohetik!*
- *Makina bat ume ari dittuk Atxutxiren udalekueetan!*
- *Lasai nagon behintzat. – Hi, hori asko don, eh!*

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

2005eko uztailaren 1ean hil zen *Manuela Zabala Osoro* ren senarrak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



INAZIO IRIONDO PRESO OHIA

«Ez nuen amets egin nahi kartzelatik irtengo nintzen egunarekin»

1984ko azaroan atxilotu zuten Inazio Iriondo elgoibartarra. Hogei urte baino gehiago kartzelan eman ostean, ekainaren 7an aske utzi zuten. Gaurkoan berarekin hitz egin dugu hainbeste urtez kartzelan bizitzeak nola eragiten duen jakin nahirik. 20 urte 20 galderetan laburbildurik.

👤 20 urte kartzelan; askotxo, ezta?

Bai eta ez. Zergatik diodan hori? Pertsona baten bizitzan nahikoa denbora izan arren, baina herri baten askapenean ezer gutxi delako.

👤 Akorduan al daukazu atxilotu zintuzten ueña? Kontatuko al diguzu zelan izan zen?

Akordatuko ez naiz, ba! Horrelako gauzak ez dira sekula ahazten. 1984ko azaroaren 27a zen, eta eguerdiko ordu batean "txakurrak" etxe inguruko taberna batean nituen zain. Ikusi bezain pronto ihesari eman nion beraiak atzetik tiroka nituela. Harrapatu ostean, Eibartik pasa eta Indautxura eramán ninduten. Sebas Etxanizen urtebetetze eguna zela akordutzen naiz.

👤 Nola bizi izan zenituen egun haiek?

Egun gogorak izan ziren, "makila-salda

artean". Zazpi egun eman nituen Indautxun lege antiterroristapean. Sufrikarioa amaitu zela uste nuenean, epaileak beste hiru egun luzatu zuen nire inkomunikazioa. Azken egun horietan biluztu eta ubeldurak leuntzeko pomadak eman zizkidaten.

👤 Etxekoentzat ere une txarrak, ezta?

Oso txarrak, amarentzat batez ere, tiroketa entzun zuen-eta.

👤 Eta, orain, zelan zaude?

Poliki-poliki ari naiz egoera b e r r i r a m o l d a t z e n . Zigorraldi luze horren

ondorioak askatasunean ere sufritzen jarraitzen dut.

👤 Egia al da presoan ere, azkenean, ohitu egiten dela kartzelako bizimodura?

Ohitu ez, egokitu! Argi izan behar duzu non zauden, zergatik zauden hor eta zein zaindari dituzun.

👤 Nolakoa da kartzelako bizimodua?

Hitz batek oso ondo definitzen du: errutina. Eta errutina hori apurtzeko disziplina jartzea da gakoa. Egunak ekintzen bidez antolatzen ditugu: idazten, kirola eginaz, irakurriz...

👤 Kontaiguzu kartzelako egun bat.

Goizeko 08:00etan zenbaketa egiten da, gero gosaria zeldan eta ordubata arte bakoitzak denbora dauka bere zereginak egiteko. Ordubetetan bazkaria zeldan eta 14:00etatik 17:00etarako tarte patioan ematen dugu. Une horretan daukagu denbora preso sozialekin harremanak izateko eta kideak egiten dituzu, kirola ere egiten dugu, pilotan aritu.. 17:00etan dutxatu eta zeldara berriz 20:00ak arte; afaldu eta telebista ikusi, irratia entzun edo "Elgoibartik buelta bat emanaz" lokartu.

👤 Oroitzapen latzik ere izango duzu.

Bakarra izango balitz! Ugariak dira: eguneroko atxiloketak, heriotzak, bakardadea, isolamendua eta Caceresen nirekin preso izandako Kepa Minerren heriotza. "Txalaka" in memoriam!

👤 Gose grebak ere egin dituzu.

Tokatutako guztiak! Egun



«Etxera
itzultzean, ama
besarkatu nuen
malkoen
artean»

gogorrek izan arren, argi daukagu kartzelan gaudenok ahal dugun neurrian borrokaren parte izaten jarraitzen dugula eta duintasuna ikur gisa erabili ahal dugula.

👤 **Baina, kartzelan ere, egongo da alde positiborik, ezta?**

Lagunak, benetako lagunak egiten dituzu. Gainera, nor bere burua ezagutzeko eta mugak non dituzun jakiteko ere balio dezake.

👤 **Etxetik zenbat kilometrora egon zara? Zenbat kartzelatan?**

Caceres-eko bi kartzelatan 16 urte eta erdi egin ditut, etxetik 690 km-tara. Aurretik, Herreran lau urtez egon nintzen, Carabanchelen 15 egun egin nituen eta Alcalá Mecon beste bi aste.

👤 **Bisitak nola hartzen dira kartzelatan?**

Bizigarriak dira. Senitartekoen eta lagunak bisitek eta eskutitzek izugarriko poza ematen dute. 40 minutuko bisita arruntan ostean edo ordu eta erdiko bisiten ostean mila buelta ematen nizkion buruari nire txabolan sartuta, herriko berriekin bakarriketan.

👤 **Zein iturritatik jasotzen zenituen herriko berriak? BARREN ere jasotzen zenuen, gustura?**

“Preso bat, Gara bat” kanpainari esker egunkaria jasotzen genuen eta, horrez gain, LAB aldizkaria eta BARREN eta Argia astekariak irakurtzeko aukera ere bagenuen. Madrileko zentsura pasa ostean iristen zitzaizkigun, atzerapenarekin, baina oso gustura jasotzen genituen.

👤 **Aterako zinen egunarekin ametsik egiten al zenuen?**

Egia esan, ez. Zertarako? Banekien Audientzia Nazionaleko “putreek” edozein momentutan gauzak aldatzea posible zutela. Hor dago, esaterako, Iñaki De Juanaren kasua.

👤 **Elgoibarrera iristean egin zenuen estreinako gauza?**

Etxera joan eta, zorion malkoen artean, ama eta senitartekoak besarkatu nituen. Beraiekin egon ostean, ongi etorria nindoala, nirekin preso egondako hiru gazte zoragarrien amak topatu nituen lora-sorta batekin. Oso hunkigarria izan zen, baita ongi etorria ere.

👤 **Nolakoa zen Elgoibar atxilotu zintuztenean?**

Gaurkoarekin alderatuta, oso ezberdina. Hirigunea industrializatuagoa zegoen eta bizitzeko era ere ezberdina zen.

👤 **Eta, 20 urte beranduago, nola aurkitu duzu?**

Industria kanpora eraman da, baserriak berrituta daude... Oso aldatuta aurkitu dut, esate baterako, pena eman dit Errosario kalean tabernarik ez topatzeak.

👤 **Bakea berandu baino lehen ezagutuko al dugu?**

Bakea justizian oinarrituta bada, kostako da, izan ere, bakea ez da bi aldeetako baten errendizioan oinarritzen. Dena dela, bide onetik goazela uste dut eta itxaropentsu nago.

👤 **Amaitzeko, zerbait esan nahi elgoibartarrei?**

Urte hauetan presoan egoerarekin inplikatu diren guztiei eta lagundu digutenei, eskainitako babes eta maitasunagatik, eskerrak eman nahi dizkiet.

«Pena eman
dit Errosario
kalean
tabernarik ez
topatzeak»



[PROTAGONISTA]



Ainhoa Lendinez

Ainhoa Lendinezek jaso du Kazetari Berria atalean Rikardo Arregi saria. 2004-2005 urteetan zehar Argia astekarian argitaratutako erreportajeengatik diploma, oroigarria eta 3.000 euro jasoko ditu. Kazetari Berria sailean 27 urtez azpikoen lanak hartzen dira kontuan. Gotzon Garateren iloba, Barren astekariko kolaboratzailea da, Euskal Filologian lizentziatua, egun kazetaritza ikasketak ari da egiten. Duela bi aste elkarriketatu genuen Ainhoa, izan ere, kirolari amorratua da, txirindularia eta antxintxikalaria besteak beste. Zorionak, Ainhoa!

[NOTIZIA]

Udalak lurperatutako edukiontzia jarriko ditu herriaren erdigunean

Lurperatutako edo lur-azpiko edukiontzia jarriko ditu Udalak herriko hainbat gunetan: Plaza Txikian, Pedro Migel Urruzuno eta San Inazio kaleetan, hain justu. Izan ere, gaur egun produktu organikoak, beira eta papera birziklatzeko dauden edukiontzi edo kontenedoreak ez dira betere estetikoak eta itxuraz ez ezik, usaina ere egoten da horien inguruan. Hori dela eta, beste hainbat herritan egin den bezala, Elgoibarren ere azken plenoan onartu zen lurperatutako edukiontzia jartzeko diru -partida: 526.000 euro.

Birziklapena ziurtatua

Errotaburuko etxe berrien aurreko aldean ikus daitezke dagoeneko era horretako



edukiontzia, askosaz garbiagoak eta diskretoagoak. Hauek ere sailkatuta egongo dira eta herritarrek aukera izango dute zaborra birziklatzeko, ontzi bakoitzak mota ezberdineko zikinak jasoko ditu-eta, hala nola, hondakin organikoak, papera, plastikoa eta beira.

[ZENBAKIA]

700.000

Elgoibarko Udalak 700.000 euro gastatuko ditu Sigmako aparkalekua egokitzeko. Obra hauen helburua ingurune hau ostegunetako azoka bertan

kokatzeko eta beste hainbat ekitalditarako prestatzea da. 2005ko udal aurrekontua obra hau egiteko egokitu egin zen joan zen asteko Udal Plenoan.

asteko [ARGAZKIA]



Iruña ala Elgoibar? Gure herriko kaleak txuri-gorri jantzi ziren atzo goizean. Iritsi dira San Ferminak, eta etxeko txikienek San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten atzo. Plaza Handian hasita, San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar entzierroa egin zuten. Zezen beltzen aurretik korrika ibili ziren umeak. Ondoren, poni gainean ibiltzeko aukera izan zuten Plaza Handian. Bestalde, Udalak Iruñako entzierroak emango ditu zuzenean goizero-goizero Kultur Etxean jarriko duen pantaila handian. Gora San Fermin!

Jende ugari Inazio Irionderen omenaldian



Mutriku eta Ermutik abiatutako preso en aldeko martxak ireki zuen eguna, joan zen larunbatean, uztailaren 2an. Elgoibarren elkartu ziren denak eguerdi aldean, eta manifestazioa egin zuten herriko kaleetan zehar. Ondoren, Inazio Iriondo omendu zuten. 21 urte kartzelan pasa ostean, euskal preso politiko elgoibartarrak omenaldi hunkigarria jaso zuen. Madalako parkera jende asko hurreratu zen eta ikurriñak nonahi ikusi ahal ziren. Eguraldi bikaina egin zuen, eta herri bazkarian elkartu zirenek giro onean pasa zuten eguna.

[MOTZ-MOTZIAN]

Urtebeteko kartzela zigorra Elgoibarko taxista batentzat

Haurdun zegoen emakume brasildar bat sexualki behartzeagatik urtebeteko kartzela zigorra jarri diote Elgoibarko taxista bati. Gertakari hau 2004ko urriaren 4an gertatu zen, emakumeak Mendaroko Ospitalera joateko taxia hartu zuenean. Joan zen maiatzaren 31n izan zen juizioaren aurre bista, eta epaileak proba nahi-koak ikusi zituen taxista zigortzeko.

Imanol Cerdeira Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Imanol Cerdeira izan da BARRENEko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Berak nahi duen lagunarekin Debako Kresala Talaso hotelean zirkuitoa egiteko aukera izango du. Zorionak!



Merkatu Plazako zozketa

60 euroko lau txeke zozketatu dituzte Merkatu Plazan, eta irabazleak Rosa Cid, Idoia Uriarte, Begoña Latxa eta Pilar Miguel izan dira. Saria erosketa txeketan jasoko dute.



Gure Bide Elkarteko oharra

Gure Bide Elkarteko urteurreneko afaria uztailaren 22an ospatuko da. Interesatuek Elkartean bertan dagoen zerrendan eman dezakete izena.

Azokako merkatariek aldarrikapenekin jarraitzen dute

Elgoibarko Udalak eta azokako merkatariek ez dute akordioak lortu. Udalak ez du bere erabakia aldatu, eta azokako merkatariek beren aldarrikapenekin jarraitzen dute. Atzo, osteguna, uztailak 7, behiek gure herrian jasotzen duten tratua berbera eskatzen zuten, hau da, Sigmako aparkalekua egokitu bitartean, azoka Plaza Txikian jartzeko baimena nahi zuten. Goizeko 9:30ak inguruan, behi aurpegiz eta zintzarriz jantzita zeharkatu zituzten herriko kaleak. Esan digutenez, ez dira isilduko eta beraien skubideak lortu arte zarata ateratzen jarraituko dute.



Umore onean ospatu zuten 50 urtekoek kinto bazkaria



1955. urtean jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria ospatu zuten ekainaren 25ean. Meza izan zuten lehenengo,

ondoren argazkia atera zuten bolatokian eta bukatzeko bazkaria Harzubi jatetxean. Umore eta dantzarik ez zen falta izan!

Inkesta

Tratu txarren ondorioz hiru emakume hil dira aurten EAEn.

Gutxituko al dira tratu txarrak genero indarkeria aztertzekeo jarri dituzten epaitegi bereziei esker?

GLORIA AGUAYO

Erizaina
35 urte



“Legea gogortzea ondo dagoela iruditzen zait, baina arazo honen muina heziketan dago, gizon batek emaztea jotzen badu semeak hori ikasiko du.”

M^a CARMEN AGUILERA

Etxekoandrea
36 urte



“Ez dut uste. Erasotzailea urrutira bidali behar da preso erasotua rengana ez gertatzeko, baina benetan, eta ahal balitz berak egin duen zigor bera ezarriko nioke.”

ERNESTO ANUNCIBAI

Kalitate arduraduna
35 urte



“Ez. Honek ez du arazoa gutxitzen, tratu txarra eman ostean irtenbidea bilatzen saiatzen da, eta hori ez da bidea. Ez dauka irtenbide erraza, arazo zaila da.”

ANDRES DORTA

Pasteleroa
36 urte



“Ez dut uste hori denik irtenbidea, aurrerapausu bat izan daiteke, baina honek ez du arazoa gutxituko. Heziketa landu behar da, eta jendearen pentsakera aldatu.”

[BAI ala EZ?]

Oraindik ere bidaltzen/jasotzen al dituzu eskuz idatzitako eskutitzak?

BAI %30

“Pertsonaren arabera, bai. Neska-laguna kanpoan izan dut lehengo urtera arte eta dudarik gabe eskuz idatzitakoak du xarma. Orain momentuan posta elektronikoa erabiltzen dut.”

EZ %70

“E-posta erabiltzen hasi aurretik ere oso gutxi jasotzen nituen. Baina e-postari esker urrutiko lagunekin harreman estuago eta azkarragoa daukat orain. Hala ere, eskuz idatzitako eskutitz bat bezelakorik ez dago. Aste osorako irribarrea uzten dizu.”



ESKERTZA

2005eko ekainaren 29an, 78 urte zituela hil zen *Francisco Iriondo Lazarobasteren* sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



“Muxi” omendu zuten BH Institutuko diploma banaketa ekitaldian



Jose Manuel Esnaola “Muxi”, BH Institutuko soinketako irakaslea jubilatatu egin da, eta joan zen uztailaren 1ean egin zioten agurra kurtso bukaerako diploma banaketa ekitaldian. Lore sorta bat eman, eta Anjel Ugarteburuk eginiko bertso batzuk abestu zizkieten Muxiri Herriko Antzokian bildu zirenek. Bere emazte, seme-alaba eta bilobak ere bertan izan ziren.

Diploma banaketa ekitaldia BH Institutuaren 50 urteak laburbiltzen zituen bideo emanaldiarekin hasi zen. Ondoren dantza ikuskizuna izan zen, eta Iñaki Konde Institutuko zuzendariaren

hitzaldiaren ostean, Migel Anjel Mujika Alkateordeak, eta Realeko Iban Zubiaurre eta Asier Riesgo jokalariek diplomak banatu zizkieten ikasle guztiei. Honetaz gain, ikasle batzuk ikasturtearen laburpen bat antzestu zuten. Umore ezin hobean burutu zen dena, eta ekitaldiari amaiera bikaina emateko Lanbroan egin zuten afaria ikasle eta irakasle guztiek. Bertan, urtean zehar egindakoak biltzen zituen bideoa ikusteko aukera izan zuten. Selektibitatea gainditu ostean eta ikasbidaitik itzuli ostean, oporretan dira dagoeneko ikasle guztiak, datorren ikasturteari begira.

IMHko Heziketa Zikloetako diploma banaketa

IMHko Heziketa Zikloetako ikasleek kurtso amaierako diploma banaketa ekitaldia ospatu zuten joan zen ekainaren 30ean. Goi-mailako Proiektu Mekanikoen Garapena, Mekanizazio Bidezko Produkzioa, Industri Ekipoen Mantenimendua eta Erdi-mailako Mekanizazio Teknikoa adarretako bigarren urteko ikasleek jaso zuten diploma. Ekitaldian Elgoibarko Alkateak, Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Zuzendariak, AFMko zuzendari ordeak eta IMHko zuzendariak parte hartu zuten. Hizlariak ikasle hauek etorkizunari begira duten garrantzia azpimarratu zuten.



[IRTEERAK]



Ikastolakoak Gorlizen

Ikasturteari amaiera emateko, Elgoibar Ikastolako LH 5. eta 6. mailakoek hiru egun pasatu zituzten Gorlizeko aterpetxean eta ekintza desberdinak egiteko aukera izan zuten. Ur ekintzen artean piragua, body-board eta wind surf-a praktikatu zituzten. Honetaz gain, eskalada, rappel eta arku tiraketa ere egin zuten.

LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Irabazlea: **Haritz Igartua**

SARIA

Elhuyar-ek eskaintako
“GIPUZKOA ZURE ESKU”
 mahai jokoa + CD-ROMa





DIONISIA FLORES

PERU [HEGO AMERIKA]

«Lana aurkitu eta bizitza egonkorragoa lortzea da nire nahia»

GEMMA AGIRREGOMEZKORTAK ANIMATUTA ETORRI ZEN ELGOIBARRERA DIONISIA FLORES. CUZCO HERRIAN BIZI DA, GEMMA ZAITZEN ZUEN HAN, ETA ORAIN HEMEN LAGUNTZEN DIO. MISKI ELKARTEAREN KANPAINAN BARNERATUTA DABIZ BIAK, ETA BERAIEEN ASMOA DATORREN URTEKO MARTXOAN BERRIZ HARA BUELTATZEA DA, HEMEN LORTUTAKO DIRUA BANATZERA.

✦ Noiztik zaude Elgoibarren?

Ekainaren 15ean atera nintzen Limatik eta hurrengo egunean iritsi nintzen hona. Bidaia oso luzea izan zen. Limatik Madrilera, eta gero Bilbora. Atzeratuta ibili zen hegazkina eta astuna egin zitzaidan. Perutik atera naizen lehenengo aldia izan da.

✦ Nola hartu zenuen zure herrialdea uzteko erabakia?

Gemma animatu ninduen. Cuzcora etortzen zenean berarekin egoten nintzen, bera zaitzen nuen eta bere lanetan laguntzen nion. Behin eta berriz esaten zidan berarekin hona etortzeko, eta azkenean etorri egin naiz. Erabakia ez da erraza izan, baina beharrezkoa zen. Gemma bera ere oso pozik dago nirekin, asko laguntzen diot, eta oso ondo konpontzen gara.

«Hemengo bizimodua Perukoa baino erosoagoa da»

✦ Nolakoa da hango bizimodua?

Peru oso pobrea da. Lan desberdinetan aritu izan naiz nire alaba aurrera ateratzeko. Hango bizimodua askoz gogorragoa da. Kanean umeak beti eskatzen ikusten dituzu, gosea daukate eta ez daukate zer jan. Gurasoek txiki-txikitatik lanera bidaltzen dituzte. Nekazarizatik bizi dira gehienak, lurra landu eta bertatik ateratzen diren barazkiak herrian saltzen dituzte. Lan handia egiten duten arren, oso gutxi ordaintzen zaie. Familiek dirua behar dute, eta ikasketeri ez diete garrantziarik ematen. Oso jende gutxi joaten da eskolara, eta unibertsitatera are gutxiago. Hemen ez da hainbesteko pobreziarik ikusten.

✦ Nola hartu zaituzte Elgoibarren?

Oso ondo. Ez nuen horrelakorik espero. Gemmak eta bere lagunek sekulako harrera egin didate. Hemengo



jendea oso ona da, oso irekia eta ez naute gutxiezen, beraien berdina banintz bezala hartu naute. Baneukan beldur apur bat, baina orain oso gustura nago. Gemmaren etxean bizi naiz, eta bera hemen egoteak asko erraztu dizkit gauzak. Orain gainera, babes ofizialeko etxea tokatu zaio eta giltzak ematen dizkiotenean biok joango gara bertara bizitzera.

👤 Zer izan da gehien gustatu zaizuna?

Dena gustatu zait orokorrean, baina batez ere, paisaiak. Dena berde-berdea da, oso polita. Cuzco askoz hotzagoa da, hondar asko dago, eta dena marroia da. Hondartzan ere izan naiz, eta asko gustatu zait. Ni bizi naizen lekutik hondartza oso urrun gelditzen da. Bestalde, jendea eta janaria ere asko gustatu zaizkit, oso ondo jaten da hemen.

👤 Zertan diharduzu hemen?

Momentuz Miskiren kanpainen laguntzen diot Gemmari. Nire asmoa lan bat bilatzea da, edozein lanetan arituko nintzakete, bizitza egonkorragoa eduki, eta ahal badut, noizbait nire familia hona ekartzea gustatuko litzaidake.

👤 Familia asko utzi duzu han?

15 urteko alaba utzi dut. Astean behin deitzen diot, eta posta elektronikoz kontaktuan gaude. Bakarrik bizitzera ohituta dago, ni beti lanean aritu naiz-eta. Nire amarekin dago orain, baina Perun adin honetako neskak bere kontura bizi dira, beren seme-alaba eta senarrarekin.

👤 Noiz arte geldituko zara Elgoibarren?

Martxora arte egongo gara hemen,

eta gero 45 egunetarako Cuzcora joango gara berriz, hemen lortutako dirua bertan banatzera. Gure asmoa orain arte eskolaratuta dauden umeak aurrera egitea eta ume berriak eskolaratzea da.

👤 Nabari al da Gemmak Cuzcon egindako lana?

Bai, Gemmak lan handia egin du Cuzcoko herriaren eta bertako herritarren alde. Dagoeneko 600 ume inguru eskolaratu ditu eta, ahal bada, datorren urtean gehiago eskolaratuko ditugu. Honetaz gain, Elgoibar izeneko negutegia eraiki zuen. Hasieran etekin handia eman zuen, lehenengo urtean barazki asko jan genituen, baina poliki-poliki gutxituz doa. Han ez dakite oso ondo negutegian nola landu behar den lurra. Oraindik lan asko dago egiteko.



PERU

- **Hiriburua:** Lima
- **Azalera:** 1.285.215 km²
- **Biztanleria:** 25.662.000
- **Bizi itxaropena:** 68 urte
- **Erligioa:** Katoliko erromatarrak (%89), ebangelistak (%7).
- **Gobernua:** Errepublikan demokratikoa.



Dionisia Gemmarekin Cuzcon eraikitako "Elgoibar" negutegian.

GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

BERTSOLARITZA,

DANEL MENDIBIL, MIKEL OLAIZOLA ETA MIKEL ARRIETA 14 URTEKO BERTSOLARI GAZTE ELGOIBARTARRAK DIRA. HIRUKOTE HONEK ERRATZU BERTSO ESKOLAN EMAN DITU LEHEN PAUSOAK ETA URTE BOROBILA BURUTU DUTE AURTEN. GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELKETAREN FINALERA IRITSI DIRA TALDEA OSATUZ ETA MIKEL OLAIZOLA, BERRIZ, EUSKAL HERRIKO ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETAN TXAPELDUNORDE GERATU ZEN. ARRAKASTA HAUEI KASU EGINEZ GERO, BERTSOLARITZA GURE HERRIAN OSASUNTSU DAGOELA PENTSA DAITEKE, BAINA ALA OTE DA? ZALANTZA HAU ETA BESTE BATZUK ARGITZEN SAIATU GARA BERTSOLARI GAZTEEKIN.

Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketaren finalera iritsi zarete aurten.

Mikel Arrieta: Taldekako txapelketa zen eta hirurok talde bat osatu genuen. Kanporaketa bat gainditu ostean sailkatu ginen Donostian jokatu zen finalerako. Azkenean 3. postuan geratu ginen.

Mikel Olaizola: laz ere parte hartu genuen, baina aurten maila altuagoa egon dela uste dut. laz eta aurten Urretxu-
Z u m a r r a g a
a l d e k o
bertsolariak
izan dira
onenak.
Hemani eta
A ñ o r g a
aldean ere afizio
handia dago.

Zuk Mikel, Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelken txapeldunorde izatea lortu duzu. Espero al zenuen?

M.O.: Gustura geratu nintzen egindako saioarekin eta bigarren edo hirugarren geratuko nintzen zalantza neukan. Iparraldeko bertsolariak ibili dira fin. Bat bateko saio gehiagotan ibiltzeko aukera daukate, dela Herri

Urratsean, dela ikastoletan... eta igartzen da. Elgoibarren aukera gutxi ditugu bat bateko saioetan aritzeko eta errodaje gutxiago daukagu. Oholtza gainera igotzean nabaritzen da nor dagoen ohituta eta nor ez.

Erratzu Bertso Eskolako lehen fruituak zaretela esan al dezakegu?

M O.: Erratzu egongo ez balitz ez genuke bertsotan aritzeko aukerarik izango. Eskerrak eman nahi dizkiegu Pake, Irati, Erlantz eta Ainhoari, lan asko egin baitute. Bide batez elgoibartarrak, gazteak batez ere, animatu nahi genituzke bertsoen mundura hurbiltzeko.

Danel: Duela hiru urte hasi ginen Erratzun eta

“Elgoibarren aukera gutxi dago bat batean aritzeko”

MIKEL OLAIZOLA

BARREN

HITZEN JOLASA

hilabete gutxi generamatzanean, bat bateko bertsoekin hasiera animatu gintuzten. Gonbitea harriduraz hartu genuen, baina entsaiatzen hasi ginen.

M.A.: Lehen urtea izan zen zailena, baina hobetzen eta soltura hartzen joan gara.

Zein dira bapatekoaren zailtasunak?

M.O.: Urduritasuna eta bertsoa botatzeko daukazun denbora, azkar bota ezean jendea aspertzen hasten baita, eta horrek bertsolariaren urduritasuna areagotzen du. Bat batean pentsatutakoa bere horretan bota beharko gurekela uste dut, baina askotan oker egiten dugula iruditzen zait, bertsoa bota aurretik memorizatzen saiatzen baikara. Horrela jokatuz esan beharrekoak ahazteko aukera gehiago dago.

Zertan nabarmentzen zarete? Zein dira zuen puntu fuerteak?

D.: Lasaitasunez abesten dut, astiro eta urduri jarri gabe.

M.O.: Gai serioetan nabarmentzen naizela diote. Umorea edo ironia erabiliz ez dut bertsoak horrenbeste borobiltzea lortzen. Bestalde, gehien gustatzen zaidan lana hitz bat emanda bertsoa asmatzea da.

M.A.: Gaia emanda oinak emanda baino hobeto moldatzen naiz ni.

Eta zertan daukazue ikasi edo hobetu beharra?

M.O.: Ausardia edo adore gehiagorekin abestu beharko nukeela aipatzen

didate beti, eta ironia puntu bat erabiltzeko ere bai.

D.: Beti erimak emanda abestu izan dut, baina gai bat emanda abestea lan gogorragoa da eta asko entrenatu beharra daukat.

M.A.: Nerbioak dira nire ahulezia nagusia. Ez naiz batere plaza gizona.

Ba al dago bertsotarako afiziorik Elgoibarren?

M.A.: Ez dago afizio askorik, baina ari da piska bat sortzen. Une honetan 12 lagun gaude Erratzu Bertso Eskolan. Guztiak neskak gu hirurok izan ezik.

D.: Gure koadrilan ere bertsotan aritzea ez dago oso ondo ikusita. Ez gaituzte oso aintzat hartzen. Umekeria moduan ikusten dituzte bertsoak.

Gustuko bertsolari bat?

M.O.: Andoni Egaña dela onena uste dut, baina Unai Iturriaga ere gogoko dut.

D.: Amets Arzallus gaztea eta bertsolari ona da. Bere arreba gaztea ere anaiaren bide beretik dohala

ematen du. Euskal

Herriko

Eskolarteko

Bertsolari

Txapelketa

irabazi

berri du gaztetxoan mailan, Mikelena baino goragoko mailan.

Ezin aukera pasatzen laga eta bertso bat botatzeko eskatu diegu.

*Bertsoaletasuna
badoa aurrera
hipokrita guztiak
utzita aldera
bultzatuaz bertsoa
ta noski euskera
zerbait lortuko dugu
guztiok batera.*

Doinua: Errota zahar maitea.

**“Ez naiz
batere plaza
gizona”**

MIKEL ARRIETA

**“Lasai abesten dut,
astiro eta urduri
jarri gabe”**

DANEL



MANOLI VERGEL SABEL DANTZAKO IRAKASLEA

«Norberaren barne lanean oinarritzen da sabel dantza, oso sakona da»



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatuta, Sabel Dantza ikastaroa hasi zen joan zen astelehenean, uztailaren 4an. Manoli Vergel emuarra da irakaslea, eta berak azaldu dizkigu sabel dantzaren sekretuak. Interesatuak kiroldegian eman dezakete izena.

👉 Zertan datza sabel dantzak?

Norbanakoaren barneko lana da. Gorputzaren atal guztiak banatu behar dira, bakoitza zati bat da, zati desberdina, baina norberak kontrolatu behar du dena, atalak ezin dira beraiek nahi duten bezala mugitu, norberak mugitu behar ditu. Gorputza desblokeatu eta atal guztiak mugitu behar dira. Oso dantza sakona da.

👉 Non du bere jatorria?

Nik ikertu dudaren arabera, ez dauka jatorri konkretu bat. Batzuk Egipton kokatzen dute, beste batzuk Grezian, Turkian... Ekialde Ertainetik datorrela dirudi, baina toki bakoitzean modu batean dantzatzen da.

👉 Zein jantzi eta instrumentu erabiltzen dira?

Badaude jantzi tipikoak, baina batez ere, jantzi erosoak erabiltzen dira, gonak, bonbatxoak... Instrumentu eta edergarriak ere oso tipikoak dira, zapiak, edo kastainuelak...

👉 Gizonezkorik ba al dago?

Oso gutxi, emakumezkoak dira nagusi. Eibarko talde baten izan dut mutil bat eta oso ondo moldatzen zen. Badirudi emakumeentzako dela, baina nire ustez edonork hartu dezake parte.

👉 Zenbat urte daramatzazu sabel dantza irakasten?

Sabel dantzaren kontu honetan hiru urte daramatzat. Bilbon hasi nintzen ikasten, baina hango irakasleak

ez ninduen gehiegi betetzen eta Madrilera joan nintzen. Han liluratuta gelditu nintzen sabel dantzarekin, eta orain nik irakasten dut. Honetaz gain, beti aritu naiz aerobik, spinning, eta beste dantza mota batzuk erakusten.

👉 Fisikoki prestakuntza handia eskatzen al du?

Ez. Gutxieneko teknika batzuk ikasi behar dira, baina garrantzitsuenak norberaren interpretazioa da. Mugimenduekin interpretatu behar da musika. Gorputz guztia askatu eta dena mugitu.

👉 Zein onura dauzka?

Oso onak. Gorputz osoa erlaxatzen da. Ordu eta erdiko klaseak ematen ditut, eta hasierako ordu erdia lurrean ematen dugu gorputza erlaxatzen. Jendea izugarri lasaitzen da. Bestalde, mantenimenturako ariketa oso ona da, gorputzeko atal guztiak lantzen direlako. Askok agujetak edukitzen dituzte, sekula mugitu ez dituzten atalak mugitzen direlako. Belarriak ere mugitu behar dira!

👉 Nola animatuko zenuke jendea sabel dantza ikastarora?

Dantza oso polita dela esango nioke, bai ikusteko eta baita praktikatzeko ere. Gauza berria da, eta denetarik probatu behar da. Momentuz 17 lagunekin taldea osatu da, ez dago gaizki. Jendea gustatzen bazaio, poliki-poliki animatuko dira gehiago.

«Sabel dantzaren bitartez gorputz guztia lasaitu eta erlaxatzen da»

XIX. NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Tuva, Kolonbia eta Euskal Herriko folklorea uztailaren 22an



Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatzen duen Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 22an, barixakuan, ospatuko da Olaizaga kirodegian. Bata bestearengandik oso ezberdinak diren bi herrialdetako folklore erakustaldia ikusteko aukera izango da aurten; izan ere, Siveriako Tuva Errepublikako Sayani Taldea eta Kolonbiako UIS Taldeak dira gonbidatuak. Tuvako Errepublika Mongoliaren iparraldean eta Txinako mugetatik gertu dago. Sayani talde nazionalak koreografia erlijiosoaren oinarriak eta folklore

xamanikoaren mugimendu plastikoak nahasten ditu. Tradiziozko jantziak, maskara eta neskatilen lirismoa nabarmentzen dira.

Kolonbiarrei dagokienez, UIS Folklore Taldea 1975ean sortu zen eta Christian Quijanok zuzentzen du 1999tik. Taldeak bere herrialdearen dantza eta musikaren ibilbide erakusgarria prestatu du. Herriaren sentimendua ere jasotzen du "Colombia Pais de Regiones" ikuskizunak. "Harrizko bide batean ari gara oinez, baina zorionez elkarri eskutik helduta" leloa hautatu du taldeak, lanaren adierazgarri.

Haizeakoak Tarazonan

Haizea Emakume Taldekoak Tarazonan izan ziren ekainaren 19an. Zaragozako probintziari dagokion 11.000 biztanleko hiri hau Aragoi, Nafarroa, Gaztela eta Errioxaren arteko mugan kokatuta dago, Moncayo (2315 m.) mendiaren magalean. Argazkian ikusten den bezala, emakume mordoska bat bildu ziren txangoan. Eguraldi ederra izan zuten, eta oso ondo pasatu zutela kontatu digute.



ESKERTZA

2005eko uztailaren 6an hil zen *Alejandro Iriondo Igartuaren* emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



II. URTEURRENA

2003ko uztailaren 6an, 24 urte zituela hil zen *Jon Andonegi Amestiren* oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, uztailak 10, eguerdiko 12:30etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



JABI GURRUTXAGA FUTBOL JOKALARIA

«Futbola dela-eta kilometro batzuk egitea tokatu zait»



Bigarren A mailara igotzea lortu du aurten Jabi Gurrutxaga (30 urte) elgoibartarrak Lorca (Murcia) taldearekin. Oporaldian etxera itzuli dela aprobetxatuz, orain arte futbolean egin duen ibilbideaz berba egin dugu.

🦋 **Futbolaren alderdi gozoa ezagutu duzu aurten?**

Bai, eta bazen ordua! Denboraldi oso irregularra jokatu arren mailaz igo dugu. Abenduan entrenatzailea kanporatu eta Unai Emery, gurekin jokatzeko ari zen jokalaria, jarri zuten entrenatzaile. Egoera oso arraroa izanagatik, dirudienez, espabilatu egin gintuen eta indartsu iritsi gara azken txanpara. Alicante lehenik eta Real Union gero kanporatu genituen.

🦋 **Sinestezina Real Unionen aurkakoa, ezta?**

Bai. Etxean 1-2 galdu ondoren, 1-3 irabazi genuen lrunen. Partida zoroa izan zen, azken minutuko gol harrigarri eta guzti. Bi hilabete lehenago inork ez zuen gugan sinesten lorcan. Ezustekoa eta poza tamaina berekoak izan ziren.

🦋 **Zer aurkitu duzu Lorcan?**

Diru arazoak medio, duela 3 urte desagertutako taldetik sortutako proiektua da Lorca berria. Bertan 7 euskaldunek topo egin dugu. Hiri gisa ez dauka aparteko ezer: kostaldea 30 km-ra, 60.00 biztanle eta erabat laua da. Udan demaseko beroa egiten du.

🦋 **Lorcan jarraituko al duzu?**

Ez. Zer aterako zain nago. Mahai gainean ditudan aukerak aztertu eta niretzat onena aukeratu beharko dut.

🦋 **Talde askotatik pasa zara?**

Elgoibarren hasi eta Eibarrekin lau urterako kontratua sinatu nuen, baina

Elgoibarren eta Barakaldon lagata jokatzeko egon nintzen. Berriz Eibarren jokatu nuen eta handik Oviedok fitxatu ninduen. Gero Ceutan urtebete eta aurten Lorcan. Futbola dela-eta kilometro batzuk egitea tokatu zait!

🦋 **Zer oroitzapen laga dizkizu toki bakoitzak?**

Leku bakoitzak bere berezitasunak ditu. Eibarren ezberdina den futbola ikusteko era ezagutu nuen. Apaltasuna da nagusi; badakite zer daukaten eta horekin moldatzen dira. Oviedon maila galdu berri zuten eta lehen mailako egitura zuen taldearekin egin nuen topo: jokalaria internazionalak, atzeritarak, instalazioak, hiria... Aurreko urtean telebistan ikusten nuen jendea aldagelan ondoan izatera pasa nintzen. Ceutan beste kultura eta erlijio bat ezagutzeaz gain, futbola ezberdin bizi zuten. Lorcano abenturatik, berriz, jende oso ona ezagutu eta igoera bizitzeko zortea izan dut.

🦋 **Ingeniaritza ikasi duzu, ezta?**

Bai, Goi Mailako Ingeniaritza. Eguneko 24 orduak ikasten eta futbolean eman ditut urte batzuk. Robot baten gisan dena programatuta. Amaitzean, futboletik bizitzeko aukera nuela ikusirik, bide hau hartu nuen. Oviedok eskaini zidan lehen aukera eta horrelakoak behin bakarrik izaten direnez, aprobetxatu egin behar dira, futbolariaren bizitza laburra baita. Halere, gerorako ere ari naiz prestatzen.

«Igoera lortu baino 2 hilabete lehenago inork ez zuen gugan sinesten»

FUTBOLA

Atleticek Iban Zubiaurre mendaroarra fitxatu nahi du

Duela denboraldi batzuk Joseba Etxeberriarekin gertatu zen antzera, Iban Zubiaurre mendaroarrak Realak eta Athleticekin fitxatu du, edo Athleticeko jokalaria bailitzan aurkeztu du Ibaiganeko klubak, bederen. Izan ere, bi taldeak ez dira ados jartzen eta jarrerak dauden moduan baliteke auzitara ere jotzea. Libre zegoen jokalaria fitxatu duela dio Athleticetik eta Realak, berriz, automatikoki beste urtebetez luzatu zaiola kontratua. Jokalariaren eta bere

ordezkariaren arabera Realeko kirol zuzendariarekin, Roberto Olaberekin, adostu zuten kontratua bertan behera uztea, baina Olabek ez duela horrelakorik adostu dio. Ezadostazunak luzerako jo dezakeela dirudi.

Bestalde, C.D. Elgoibar gertatuko denaren zain dago, Mintxetan hezitako jokalaria izanik, fitxaketaren %10a baitagokio talde elgoibartarrari. Hortaz, zenbat eta gehiago ordaindu Athleticetik, diru gehiago jasoko luke C.D. Elgoibarrek.



Urquijo kantabriarra nagusi San Pedroko motokross proban

Idortorbe Bailarako jaien egitarau barruan jokatu zen Manu Alvarezen Oroimenezko II. Motokross Proba joan zen uztailaren 2an. 55 motorzalek parte hartu zuten Txusko Moto Klubak antolatutako proban. Euskadiko Motokross Txapelketarako proba puntuagarria zen eta Francisco Javier Urquijo kantabriarrak irabazi zuen proba nagusian (MX1). Roger Carrasco urretxuarrak sailkatu zen bigarren postuan eta Oscar Diaz bizkaitarra 3. postuan. MX2 edo seniorren

bigarren mailan Borja Nieto bizkaitarra izan zen onena eta MX2 Junior edo gaztetxoenen mailan Iker Lujanbio gipuzkoarra izan zen bizkorrena. Eguraldi eguzkitsuak lagunduta jendea erruz hurbildu zen Idortorbera eta gozatu ederra hartu zuten motorzaleen jauzi eta aurreraketa harrigarriekin. Txusko Moto Klubetik sanpedrotarrei eta Jai batzordeari eskerrak luzatzeko eskatu digute beraietaz akordatu eta emandako erraztasun guztiegatik.

Santi Artetxek irabazi zuen San Migelgo Rallysprinta

Santi Artetxe bizkaitarra izan zen nagusi San Migelgo III. Rallysprintean. Peugeot 206 WRC autoa gidatuz lortu zuen garaipena Artetxek. Ruben Garcia (Ford Escort WRC) errioxarra sailkatu zen bigarren postuan, irabazlearengandik 7 segundora eta Cesar Gonzalez (Citroen Saxo Kit-Car) kantabriarra geratu zen hirugarren postuan. San Migelgo Rallysprinta Euskadiko Rallysprint Txapelketako zazpigarren proba puntuagarria zen. Hiru proba geratzen dira txapelketa amaitzeko eta Santi Artetxe bera da irabazteko hautagai nagusia, alde nabarmena ateratzen baitio sailkapen nagusiko bigarren sailkatuari. Guztira 56 autok parte hartu

zuten San Migelen, baina 41 autok bakarrik bukatu zuten proba.



Jubenilak Debarroko Pilota Txapelketaren finalera

Lagunak Pilota Eskolako jubnil mailako pilotariak Debarroko Txapelketaren finala jokatuko dute. Portuk eta Atxotegik Oskarbiko bikotea kanporatu zuten finalaurrekoetan eta finalean Oñatiko Aloña Mendi taldeko pilotariak izango dituzte aurkari. Itziaroko pilotalekuan jokatuko da finala bihar, uztailaren 9an. Lizarralde eta Arrizabalaga kadete mailako pilotariak ere bazuten finalera sailkatzeko aukerarik, baina finalaurreko kanporaketan ezin izan zituzten Eskoriatzako pilotariak gainditu.

Merkatua

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- † 19 urteko neska haurrak zaintzeko prest. ☎ 649368137
- † Emakumea nagusiak zaindu edo jate-txe eta tabernetan ontziak garbitzeko. Papelak ditut. ☎ 690 701118
- † Emakumea nagusiak, haurrak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 943 74 03 31
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. Elkarteak, portalak, tabernak... ☎ 646 235 195
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. Elkarteak, portalak, tabernak... ☎ 639 88 20 04
- † Neska gaztea uztailean lan egiteko prest. ☎ 689 584 285
- † Tituludun soldadorea eta erakuntzan 2. mailako ofiziala den mutila lanerako prest. ☎ 943531745/661225149
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 686 57 82 28
- † Mutila lanerako prest. ☎ 665 12 98 77

ESKAINZA

- † Ume bat zaintzeko neska behar da. ☎ 690 70 31 18
- † Ikastolako kirol entrenamenduetarako teknikaria behar da. informazio gehiago: elgoibar@ikastola.net ☎ 943 74 44 41

- † Kamareroak behar dira ostalaritzan lan egiteko. ☎ 699 00 51 35
- † Ileapaintzailea behar da hilabete batzutarako. Egun erdiko kontratua. ☎ 655 511 588 (lan orduetan)
- † Sukaldaria behar da. ☎ 943 741626

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai Soruluzen. ☎ 943 85 29 99
 - † Etxea salgai Foruen Plazan. ☎ 675 70 61 38/943 74 44 32
 - † Etxea salgai San Pedro de Pinatar-en (Mar Menor). 2 logela, sukalde, jangela, komuna, terraza, aire egokitu, gara-jea aukeran. ☎ 627 377 543
 - † Etxea salgai Donostian (Antiguo). 104m². Egongoela handia, 2 logela. usuarios.lycos.es/pisua helbidean argazkiak. ☎ 943 377 292 (21:30-22:30)
 - † Etxea salgai Pedro Muguruzan. Sukaldea, komuna, egongela, 2 logela, balkoia, terraza eta trasteroa. 156.000 euro. ☎ 600 300 682
 - † Etxea salgai Marbellan. Atiko duplex-a, amueblatuta, garajearekin. 2 gela, binugela eta komuna, egongela, sukaldea. 14m²ko terraza, igerilekua, eta lorategia. Hondartzatik gertu. ☎ 699 17 98 72
 - † Pisua salgai Madalan. Bi logela, gara-jea eta trasteroa. ☎ 660 306 801
- ### ALOKAIRUA
- † Etxea alokatzen da. ☎ 659 19 23 56
 - † Bungalow bat alokatzen da Alcoceberen irailan. Igerilekuarekin eta hondartzarekin. ☎ 680183907
 - † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 626 91 49 04 (Rosa)
 - † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 615 00 83 46

- † Pisua hartuko nuke alokairuan uztaileko bigarren hamabostaldian Deban edo Elgoibarren. ☎ 943 74 21 44
- † Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ 639 88 20 04
- † Pisu txiki bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 677 09 70 15 (Carmen)
- † 5 logelako etxea alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Itsasora eta mendira bistak. ☎ 677780680/964491022
- † 3 logelako pisua alokairuan Peñiscolan. Oporrak, asteburuak, zubiak... Igerilekua, mini-golf, toki berdeak... ☎ 677780680/964491022
- † Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 646 235195

[LOKALAK]

- † Gazte koadrila batek lokala behar du Elgoibarren. ☎ 687 000 914

[GARAJEAK]

- † Garaiea alokatzen da Leku-Ederren. ☎ 943 74 20 34, 639353331
- † Garaie itxia alokatzen da Jausoro Plazan. ☎ 653 74 67 43
- † Garaie itxia salgai Madalan. 28 m² ☎ 646 50 28 66
- † Garaie itxia salgai Leku Ederren, 4. solairuan. ☎ 606 635 166

[PARTIKULARRAK]

- † DBH eta LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ 658 71 08 73

[SALEROSKETAK]

- † Eskopeta repetidora eta paralela kanoia arraiatua salgai. ☎ 943 74 00 79
- † Errepideko bizikleta salgai. Prezio onean. Koadroa Razeza erdiko neurria, aluminiozkoa. RX100 Shimano. ☎ 943 74 16 64 (Xabier)
- † Trititixa akordeoia salgai. Zero Zette, model B. Beltza. Berria. 900 euro. ☎ 656 77 26 36
- † Ford Fiesta XR2, 1800, 16v. salgai. SS-AM. ☎ 639 949970
- † PS2ko 13 joku oriinal salgai. Bakoitza 20euro. ☎ 627889259
- † Citroen Xsara 2.0i 16v VTS salgai. 36.000km. 9346 BSX. 2002. urtekoa. ☎ 699436295/659 563686
- † Pasiatzeko gurpil aukia, etxean egoteko, airezko koltxoia, 90zm-ko somier artikulatu elektrikoa, barandila jokua salgai. Egoera onean. ☎ 627432361
- † Bikientzako kotxesilla salgai, Inglesina markakoa. ☎ 6361295 43
- † Spitz alemaniar txakur kumeak salgai. Lulu de Pomerania, arra edo emea. ☎ 943 81 18 38
- † Katu persak salgai. ☎ 680442668
- † Hyundai AC 1300 autoa salgai. 43.000km. Merke. ☎ 943 74 35 78

[BESTERIK]

- † Hamsterak oparitzen ditut. ☎ 943 74 37 09
- † Erloju beltza galdu dut King-Kongetik San rokera bidean. ☎ 943 74 26 36
- † Errebenditik liburutegira bitartean txaketa marroja galdu dut. ☎ 699198259

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



Clinica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinikka

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

[ZORIONAK]



† Zorionak **Sugar** zure lehenengo urtebetetzean! Ondo-ondo pasa eguna eta segi orain arte bezain jator! Muxu handi bat etxekoan partez!



† Zorionak **Nere** uztailaren 5ean 10 urte bete zenituelako. Koadrilako guztien partez. Aupa Bernedina!!!



† Zorionak **Amaia, Aitor eta Nora!** Muxu handi bana Elgoibarko Izarrako langile guztien partez!



† Zorionak **Adrian** bihar urtebete egingo duzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



† Zorionak **Helene Alberdi Artola** uztailaren 10ean 6 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez, egun polita pasa!



† Zorionak **Andrea** hilaren 11n 9 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, ahizpa Mariaren partez.



† Pozik ezta **Itoitz?** Azkenean iritsi dira opor luzeak eta bihar zure urtebetetzea. Zorionak eta jaso 10 muxu potolo familiakoan partez.



† Zorionak **Jurdana**, astelehenean 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta etxekoan partez.



† Zorionak **Aitor Mancebo Fernandez** uztailaren 8an 6 urte bete zituelako. Etxekoan partez.



† Zorionak **Amanda** zure bigarren urtebetetze egunean. Muxu handi bat "sorgintxo" gurasoen partez!



† Zorionak **Imanol** zure 9. urtebetetze egunean! Besarkada eta musu mordo bat gurasoen eta Juneren partez!



† Zorionak **Xabier**ri uztailaren 13an 4 urte beteko dituelako. Etxekoan partez.



† Zorionak **Juanjol** Familiaren eta, bereziki, alaba Ane eta Mariaren partez.



† Zorionak **Mikeli** uztailaren 10ean 7 urte beteko dituelako. Familiakoan eta, bereziki, Borja eta Ignacio lehengusuen partez.



† Zorionak **Nere Babarri**, uztailaren 7an, 8 urte bete zituelako. Familia guztiaren partez, eta bereziki Rakel eta Anaren partez.



† Zorionak **Enara, Oier** eta **Irati**-ri uztailaren urteak beteko dituzuelako. Lagunen eta senideen partez. Muxu potolo mordo bat denori.



† Zorionak **Gemma** eta **Javil** Egun zorionsua pasa zuen ezkontza egunean Andrea eta Mariaren partez.



† Zorionak **Anbotoko sorginari** eta **etxeko saxofonistari** zuen 3. urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



† Aupa **bikotell** Azkenean iritsi da eguna! Zorionak eta ondo pasa!!! Koadrilakoan partez.



[OKINDEGIA]



10 igandea DOÑÁ MERCEDES



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
8	Bidasolo	Bidasolo	IBAÑEZ
9	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
10	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
11	Ibañez	Ibañez	ZABALETA
12	Yudego	Yudego	Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
13	Zabaleta	Zabaleta	
14	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	
15	Ibañez	Ibañez	



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

[10 DOMEKIA]

8:00 ESPELEOLOGIA IRTEERA

Nora: Laminetako (Berriatua) haitzuloetara
Irteera King-Kong-eko zubitik
Antolatzailea: Elgoibarko Espeleologia Taldea
Informazio gehiagorako telefonoa: 685 613 801 edo 943 20 88 10

19:00 GELATXO TALDEAREN

DANTZALDIA
Plaza Handian

[11 ASTELEHENA]

21:30 MENDAROKO SANTANA JAIETAKO DANBORRADA KO ENTSAIOAK

San Jose Ikastolan
Astelehen eta asteazkenetan
Antolatzailea: Mendaroko Udala



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA

CHARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kateekin
UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
ANTSIAZTATEA
DEPRESIOA
ESTRESA
ELIKADURA ARAZOAK
AUTOESTIMA

inbiziaren nagusia: 676 61 78 55
aldirioa bazarko: 615 70 37 25

ANIZTEN ERREKOR
LIZENTZIA BAILA-1.



Bulkatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA




Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

[12 MARTITZENA]

19:00 25. SIGMAKO PILOTA
TXAPELKETA
Finalaurrekoak
Sigmako pilotalekuan

[14 EGUENA]

19:00 25. SIGMAKO PILOTA
TXAPELKETA
Finalaurrekoak
Sigmako pilotalekuan



ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR PLAZA HANDIAN

«Un Canguro super duro»
8, barixakua: 22:30
«Millones»
9, zapatua: 22:30
«Dos Hermanos»
15, barixakua: 22:30

EIBAR, UNZAGA

«A la vuelta de la esquina»
8, barixakua: 19:30-22:15
9, zapatua: 17:00-19:30-22:15
10, domekia: 17:00-19:30-22:15
11, astelehena: 19:30-22:15
12, martitzena: 19:30-22:15
13, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Conversaciones con mama»
8, barixakua: 19:30-22:15
9, zapatua: 17:00-19:30-22:15
10, domekia: 17:00-19:30-22:15
11, astelehena: 19:30-22:15
12, martitzena: 19:30-22:15
13, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

S I N O P S I A K

«Un canguro super duro»



Zuzendaria: Adam Shankman.
Antzezleak: Vin Diesel, Lauren Graham, Faith Ford.

Shane Wolfe (Vin Diesel) Ameriketako Estatu Batuetako marineen talde berezietako kidea da. Bere azken egitekoa ariskuan dauden ume batzuk babestea izango da. Asmakizun sekretu batean lanean ari zela erail zuten zientzilaria baten semeak dira. Bi egiteko nagusi izango ditu Wolfek, gaizkiaren aurka borroka egin eta etxeko lanak txukun eguneratzea. Berak uste ez arren, 15, 14 eta 8 urteko hiru gaztetxo zaintzea mundua salbatzea baino lan gogorragoa eta arriskuagoa izan daiteke zenbaitetan.

Atzera begira



1960. urtean ateratako erretiratu zahar hau Sabino Arrietak bidali digu. Jarbe tailerretik aterata dago argazkia. Bertan, Madalako ingurunea ikusten da. Garai hartan, bide hau zen errepide nagusia, eta Mendaro aldetik zetozenentzat herriaren sarrera. Madalako elizaren horman argi eta garbi ikusten da gure herriaren izena, jendeak nora iristen zen jakin zezan. Ageri diren autoak ere garai hartakoak dira! Bestalde, Malape gaineko etxebizitzaren ondoan beste eraikin dotore bat ageri da, bere lorategi eta guzti, eta San Lazaro egoitza oraindik egin gabe zegoen.

2005. urteko argazki honetan ikus dezakegun bezala, Madalako ingurune hau ez da gehiegi aldatu. 45 urte pasatu diren arren, gauzak antzera samar jarraitzen dute hemen. Malape gaineko etxea guztiz berrituta ageri zaigu, eta eraikin honen ondoko etxebizitza ez dago hor, orain San Lorentzoko erreka pasatzen da hortik. Askoz auto gehiago ikusten dira, eta modemoagoak. Bide hau ez da gaur egun errepide nagusia, baina seguru garai hartan baino auto gehiago ibiltzen dela hemendik. Argazkian ikusten ez den arren, Jarbe tailerra botata dago.



I. URTEURRENA

2004ko uztailaren 4an, 96 urte zituela hil zen *M^a Reyes Gonzalez Aguilera*ren oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, uztailak 9, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



deba
BARRENA

2005-2006



Debabarreneko Esperientzia Eskola

Zer da Debabarreneko Esperientzia Eskola?

Debabarreneko Esperientzia Eskola, elkarketarako gune irekia eta gizartearen era positiboan eragiteko heziketa moduluak batzen dituen proiektua da.

Debabarreneko Esperientzia Eskola, Debegesak Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin sorturiko proiektua da.

Nori zuzenduta dago?

Eskola hau ikasteko eta gizartearen era aktibo batez parte hartzeko gogoia duten bailarako 50 urtetik gorako pertsoneri zuzendua dago eta aurreko titulaziorik ez da beharrezkoa.

Non eska ditzaket argibide

gehiago?

Debegesa • Tel.: 943 820 110
E-posta: esperientzia@debegesa.com
Koordinatzailea: **Idoia Uribarri**
Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak:
Iñaki Intxausti

Debegesa

Deba Behako Gortean
Ekonomiaerako Erortan

Sociedad para el Desarrollo
Económico del Bajo Deba



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

BASKO RENT

Lanerako kontzeptu berria

**IBILGAILUAREN
EGOKITZAPEN OSOA**

AURRETIKO TRATAMENDUA



Ibilgailu guztia garbitu eta berriztatu, motorea, hagunak, gurpilen pausoak....

BARRUKO TRATAMENDUA



Tapiztegi osoa garbitu eta berriztatu (oihal edo larrua), moketak, plastikoak...

KANPOKO TRATAMENDUA



Berriztatu, berpiztu, distirarazi, karrozeria babestu, lohi-babes, gurpilak...

ZEIN DA HELBURUA ?

Autoarentzako **zerbitzu integrala** proposatzea. Autoaren **berezko itxura** berreskuratzeko egin beharreko pauso guztiak leku batean zentralizatzea.



SIGMA Industrialdea • ELGOIBAR

☎ 902 10 32 87